

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2012ko otsailaren 22a. IX. urtea. 2.367. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Atzo ere jendez bete ziren kaleak, batez ere, San Frantzisko pasealekua, eta mozorro eta karroza asko ikusi ahal izan ziren egun osoan zehar. I. TERRADILLOS

Amaitu dira jada, egun zoroak

Bukatu dira inauteriak; Ostegun Gizenetik Asteartita bitarte hamaika istorio bizitzeko aukera izan da Tolosan, baina bukatu da jaia, eta orain atsedean hartzea tokatzen da

Igandeko zaparradek karroza asko ikustea oztopatu zuten, behar bada, horregatik aprobetxatu zuten askok atzoko eguna jendearen sormenarekin harritzeko **04-5**

Guardia Zibilak lagun bat atxilotu du Tolosan, ETArekin lotura duelakoan

Inaxio Otaño 'Ttintto' Andoainen bizi da, baina suhiltzaile parkean egiten du lan eta hor atzeman dute; beste atxiloketa Andoainen izan da **02**

Pattar zezenak gaupaseroak eta jaiki berriak bildu ditu zezen plazan

Aurtengo Tolosako inauteriak agurtu aurretik, Astelenitan parranda luzea egiten dutenak, zezen plazaren bueltan bildu dira **03**

Oharra

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAko lantaldeak jakinarazi nahi du, inauterietan lan egin eta gero, atsedean eguna izango duela gaur, eta beraz, bihar ez dela egunkaririk argitaratuko.

**Komikia** ◊

Martin Mantxo

**Idoia Mendibil Lopetegi** ◊ **Inauterizalea**

Inauterietako azken egunean, atzera begiratzeko tarte hartu ohi da, bizitua ongi gogoratzeko; Idoia Mendibil Lopetegi ibartarrak irribarre batekin egiten du ariketa hori.

«Gure amona 90 urterekin mozorroturik irteten zen»

Asier Imaz

Ioritz eta Aitzol seme alabekin eta familiarekin atera zen atzo, Idoia Mendibil Lopetegi (Ibarra, 1969) Tolosako kaleetara. Beasainen bizi den arren, ibartarrak inauterietarako gozatzeko aukerarik ez du galtzen.

Zergatik gustatzen zaizkizu horrenbeste Tolosako inauteriak?

Txikitatik bizi izan ditut Tolosako inauteriak, aita oso inauterizalea zen. Amona Errementari kalean bizi zen, eta bera ere zalea zen. Ez dakit inauteriek zer daukaten, baina asko gustatzen zaizkigu.

Familiatik datorkizu beraz, inauterietara zaletasuna?

Bai, horrela da. Aita bi edo hiru txarantetan ateratzen zen, eta amona 90 urterekin oraindik mozorroturik jaisten zen kalera; horrekin dena esanda geratzen dela uste dut [kar-kar-kar].

Bizitu dituzu aurtengoak?

Orain pixka bat aldatu zaizkit: bi ume ditut, ama duela bi urte alargundu zen... motxila handi xamarra daukat gainean, baina ez dut aukerarik galtzen. Igandean, plataforma txiki batekin, koadrilare-



A. IMAZ

kin ateratzen gara: 15 neska ume pila batekin. 19:30ak inguruan haurrak amonekin bidaltzen ditugu eta parranda pixka bat egiten dugu. Gero, astelehenean haurrekin eta beste koadrila batekin ateratzen gara.

Lehen nola bizitzen zenituen?

Antzera, baina askatasun gehiagorekin. Gazez gehiago ateratzen ginen adibidez, baina egunez ere bai. Inauteriak egunez beti gustatu izan zaizkit.

Bietakoren bat aukeratzekotan, zeinek geratuko zinatzeko?

Gazez martxa pixka bat egiten

dugu, baina, egunez asko gustatzen zaizkit, eta lehen ere bai. Kazkabarra taldearekin adibidez, urte askotan begirale bezala atera izan naiz, eta haurrekin egun guttian ederki pasatzen genuen.

Oro har, aurtengo inauterien inguruan zeinda zure iritzia?

Gustukoa izan dut dena. Sekulako karrozak egin ditu jendeak, nahiz eta igandean, eguraldia medio, ez genituen denak ikusi. Hori bai, bada zerbaitek gustatu ez zaidana: hainbat karrozetako musikaren bolumena. Garai batean, karrozaren edo plataforman bazeunden, eta txarantaren bat pasatzen bazen, musika jaitsi egiten zenuen. Gaur egun, isiltzen dena txaranga izaten da.

Zenbat egunetan atera zara mozorrotuta?

Hirutan, egun bakoitzean mozorro batekin. Igandean, Rocioz edo sevillanaz atera ginen. Astelehenean, motozalez, baina patinetarekin, eta asteartean, aurkitu nuen lehen gauzarekin, eskimaldez edo... Asteartean normalean garajera joan eta aurkitzen dituzun trapuekin osatzen dugu mozorroa.

Guardia Zibilak lagun bat atxilotu du Tolosan

Beste gizonezko bat ere atzeman dute Andoainean; Madrileran eraman dituzte ETArekin lotura dutelakoan

Rebeka Calvo Tolosa

Guardia Zibilak bi lagun atxilotu zituen atzo goizaldean Tolosan eta Andoainean, ETArekin lotura dutelakoan. Atxilotuak Juan Inazio Otaño *Tintto* Berria Taldeko langilea (Bidera banaketa enpresakoa) eta Iñaki Igerategi dira; azken hau atxilotu dute Tolosan. Goizaldeko ordubetan atxilotu zituzten, eta euren etxeak eta garaje bat miatu ostean, Madrileran eraman zituzten.

Igerategi 08:30ak pasatuta atera zuten etxetik eta Aingurasategi kaleko garaje batera eraman

zuten. Tolosako suhiltzaile parkean atxilotu zuten han egiten duelako lan. Igerategiren etxetik hainbat kaxa atera zituztela azaldu zuten lekukoek.

Hainbat lagun bildu ziren atxilotuen etxearen kanpoaldean bakesa adierazteko, eta Guardia Zibila joaterakoan furgoneta bat jo zuten, eta Guardia Zibilak sakanatu egin zituen.

Informazio kontrajarriak

Informazio gutxi zabaldu zen atzokoan atxilotetak eta gero, baina *El Mundo* Espainiako egunkariak polizia iturriak aipatuz zabaldu zuenez, Otaño eta Igerategi orain urte batzuk Miguel Lopez Peña ETako kidearekin harremanetan izan ziren, 2008. urtera arte. Guardia Zibilak jada orduan horren berri bazuela gaineratu zuen egunkari horrek ha-

siera batean. Ondoren, ordea, albiste agentziek esan zuten Laurence Le Vert Frantziako epaileak aurreko astean igorri zuen informazio baten harira hasi zela Guardia Zibila atxilotuen peskian.

«ETA desegin behar da»

Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroak adierazi zuen atzo, ETA desegiten ez den bitartean, zuzenbide estatuak lanean jarraituko duela. Espainiako Gobernua ETArekin ez duela hitz egingo azpimarratu zuen Fernandez Diazek, eta ez duela harekin negoziatuko. Haren irtenbide posible bakarra desegitea dela gaineratu zuen. Fernandez Diazen arabera, desegitea «onuragarria» izango da presentzat, horrela «banakako prespetzeko onuzere» baliatuko direlako.

Oharra

Atzo goizaldera bi lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak. Tartean gure lankidea den Inaxio Otaño, *Tintto*.

Berria Taldeko langileok berri kezka garri honen aurrean ondorengo adierazi nahi dugu:

Euskal prentsako langileei ez zaizkigu ezezagunak egiten giza honetako berri mikatzak. Ezagunak zaizkigu salaketa larriak egotzita egindako lankideen atxilotetak. Gerora, salaketa horien faltsutasuna epaileek aitortu izanak, ez du inolaz ere egindako kaltea konpondu. Oraingoan ere horrela izango den ziurtasun osoa daukagu.

Atxilotuei inkomunikazioa ezarri diete. Legezko zulo ilun horretan, *Tintto* eta Iñakik pairatu dezaketen tratua gure ezinegona areagotu besterik ez du egiten. Inkomunikazioa bezalako erregimen anker batean giza eskubideek zein leku gutxi daukaten ezaguna zaigu. NBEko Giza Eskubideen Batzordeko kontalariak, Human Right Wat-

chek, Amnesty Internationalak eta giza eskubideen defentsan jarduten duten erakundeek sarritan eskatu diote Espainiari giza eskubideen ikuspegitik onartezina den erregimen hori ezabatzeke. Berria Taldeko langileok bat egiten dugu eskaera horrekin. Are gehiago bizi dugun aro politiko berri honetan.

Honenbestez, ondorengo exijitzen diogu espainiar gobernuari:

Atxilotuen eskubideak zapalduko ez direla bermatuko duten mekanismoak ezartzeko, inkomunikazioa kentzetik hasita.

Atxilotuak lehenbailehen aske uztea. Epaiketarik gabeko zigor gehiegi pairatu behar izan dugu euskal herritarrok honez gero.

Era berean, euskal herritarrei ondorengo eskaera:

Euskal herritarren eskubideak bermatuko dituen babeslekuaren eraikitzea inplikatzeko.

Bukatzeko, atxilotuei, haien sende eta lagunei gure elkatasun biko beroena adierazi nahi diegu.



Pattar zezenean korrikaldi politak ikusi ziren atzokoan. Gaupasaz zeudenak eta egunari hasiera eman ziotenak elkartu ziren zezen plazan, jai giroan. A. IMAZ

Gaupasa eta zezenak elkartzean...

Inauterietako azken eguna pattar zezenarekin hasi dutenak eta parranda egiten ari zirenak, zezen plazan elkartu dira

Asier Imaz

Tolosako inauterietako azken egunean, atzo, nahasketa polita ikusi zen pattar zezenean: mahaiaren lehen hanka zezenek jarri zuten; bigarrena, gaupasaz ze-

biltzanek; hirugarrena, esnatu berriek; eta laugarrena, txarangek.

Goizean goiz zabaldu zituen ateak Tolosako zezen plazak, 08:00etan pattar zezena baitzegoen. Eguzkia ere esnatzen ari ze-

nez, hotz handia egiten zuen geldi-egonean.

Zezenak gogotsu ibili ziren, eta bati baino gehiagori hondarra dastatzea tokatu zitzaion. Bob Marley aipatu behar da arlo honetan, artista ibili baitzen atzo goizean. Korrikaldi ederrak egin zituen, baina gehienetan zezenaren buruaren gainean, oinek lurrik ukitzen ezzutela.

Entrenamenduan ibili zenik ere izan zen pattar zezenean. Uz-

tai txiki batzuk eskuetan zizutela, hauek zezenaren adarretan sartzen ibili ziren etorkizuneko errekortariak. Harmailtan, al-

diz, txarangen doinuak eta ikusle-leen gozamina, guztiak baitzekiten inauterietako azken eguna zela atzokoa.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Festak atsedinari utzi dio lekua


Itzea Urkizu

Agur esan dio Tolosak aste bete-korromenari, txananga eta karvozen artean. Pasa den Otegin Gienezan udalotzoko haikoitik sutzia leher tu zenez geroztik, festa, musika eta mozorroa izan dira nagusi herrian; horrek ordea, ez zituen atzo inauterizaleak kikititu, eta Zaldumita neurak zapuztuz Asteartitan irten zen kalera. Gaur, hutsik izango dira kaleak, eta datorren urteko mozorroaren pentinatzen hasiko da, zuz, zenbait tolosar.



Zaldumita eta Asteleaitako jendetakabaziti, eta herriaren zulo eguna izan ohi da Asteartita. Igandeko karroza eta kompartsez berriro gozatzeko aukera izaten da, eta atzo ere halaxe gertatu zen; Zaldumita gozeta baino egerraldi hobez, dantza, antzerkia eta umorea nagusi izan ziren San Frantzisko pasealekuan nahiz Aste Zaharrean.

Gauean, sardinenaren hileta izan zen urteroko momentu, eta Inauterri hauek trustraz agur esan arren, atsedene eguna izango da gaueko tolosarentzat.



Tolosan etxe adosatuak saigat: eguzkitasun, lau gela, bi bainugela, komunak, egongela-argela handia, sukaldaria, bi autoentzako garajea, hokoa, gordin eta frostelakua.

Itzearekin, zintu 678 267 657 telefono zarteko.

Hemendik aurrera **Elhuyar** ere **Euskal Herriko Plazan**

ESKANTZA BEREZIA: Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa

35€

~~68€~~

www.euskalherriko.plaza.com

Bilatu gurekin zuzten 28a bitartean.


 ↓ **Inkesta**

Zer moduz igaro dituzu aurtengo inauteriak? Zer egun edo ekitaldi nabarmenduko zenuke?


Maddi Aldabe

«Oso ondo pasatu dut. Egunduz guztietan ateratzen naiz kalera, primerakoak izan dira aurtengo inauteriak. Txarangen musikarekin Berdura plazan dantzatzea asko gustatzen zait. Deabruz eta motozalez jantzi naiz».


Lierni Iuretagoiena

«Urtero bezala, aurtengo inauteriak ere oso onak izan dira. Diana da gehien gustatzen zaidan ekitaldietako bat. Horrez gain, astelenita gauko parranda primerakoa izan da. Motozalez eta Victoria's secret-ez jantzi naiz».


Alaitz Nogales

«Egunero ateratzen naiz kalean inauterietan, eta moztu ere hiru egunetan. Asteartean, punky jantzi naiz. Astelenitan, Txiribitu aisialdi taldearekin ateratzen nintzen, eta egun hori izan da bereziena. Gora Tolosako inauteriak!».


Gari Garcia

«Oso pozik nago, ederki igaro dudalako. Ostegun Gizenean oso-oso ondo pasatu nuen. Niretzat horixe izan da egun bereziena. Zezen festa eta zezen sutzak asko gustatu zaizkit, eta baita txarangekin dantzatzea ere».


Miren Intxausti

«Oso ondo. Gustura geratu naiz aurtengo inauterietan, pozik. Egunduz guztietatik bat aukeratu behar ko banu, Asteartean aukeratu nuke. Familian irten gara aurreneko aldiz, mahatsez jantzi».



Mozorroak gordetzeko unea

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

**Txaro Berra**

«Oso inauterizalea naiz, eta aurten ere primeran pasatu dut. Egutero irten naiz, hutsik egin gabe, eta indarrak bukatu arte ibili naiz kalean. Egunez gehiago gozaten dugu, koadrilan. Albako dukesaz mozorrotu gara».

**Natalia Ezeiza**

«Oso onak izan dira aurtengo inauteriak. Zaldunitan ez nintzen atera euria egin zuelako, baina beste egun guztietan bai. Astelekitan Kirikiño aisialdi taldearekin, eta Asteartitan gurasoekin, Hirukiez mozorrotuta».

**Ane eta Josu Atorrasagasti**

«Oso ondo pasatu dugu aurten ere. Asko gustatzen zaizkigu inauteriak. Gehiena zezen festan gozaten dugu, eta baita txarangekin saltari ere. Deabruz mozorrotu gara Astelekitan, eta motozalez beste egunetan».

**Amaia Lasa eta Maider Perez**

«Ederki pasa dugu. Egin duen eguraldi bikainagatik, eta dagoen lasaitasunarengatik, Asteartita izan da egunik politena. Egutero irten gara koadrilan seme-alabekin. Egunez, eta ahal izan dugunean, gauze ere pixka bat».



Animaliak, pertsoniak, pailazoak... askotariko mozorroak izan dira ikusgai. EM./IU./LT.


Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Inauteri astelehenean eguerdi aldera, Zubiberri inguruan txarangekin

saltoka argi ginela, argazki kamera galdu genuen. Argazki kamara: Canon IXUS 105. Inauterietako umeen argazkiak eta bi-

deoak daude. Norbaitek topatuz gero hurrengo telefono zenbakira erdi dezake: 688 671 656 (Luis).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi,
Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbaren, 36.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Morant, R.
Zabalarreta, 1.
Telefonoa: 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbaren, 36.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info



Irudia



DATORREN URTERARTE AGURTU DA JAIA

Bukatu dira egun zoroak, mozorroen festa, karroza eta konpartsen kalejirak... Kaleak hustu dira eta zezen plaza ere hutsik geratu da, datorren urterarte agurtu dira inauteriak. Hori bai, igande honetan

bertan, Piñata igandea izaki, Poca Tripa txaranga eta Txilaba elkar-
tea joango dira lurreamendi egoitzara, urtero bezala, azken inauteri
doinuak jotzera. A. IMAZ



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.1**

2 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria

Asteasu • Tel.: 943-69 02 83



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.2**

3 Isastegi Sagardotegia

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Aldaba Txiki, 15 • Tolosa
Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.3**

4 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako
bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: **5.4**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kidea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiraldean argitaratuko ditugu.